

- **Entzutekak:** Arruabarrena margolaria, pintzel lodi eta finekoa
- **Zer berri:** Elkartzenek jantokia eta truke azoka antolatu du Gabonetan

soraluzeko
hamabostekaria **233.** alea
2010eko abenduaren 10ean

@pil-pilean



Amaia Aldai, liburuzaina

“15.000 liburu inguru dittugu herritarren eskura”

Elizpe

Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)

Elizburu 3 behea, Soraluze • Tel. 943 75 25 67

lehenenguk...

KROKETAK (1)	0'20 €
URDAIAZPIKO IBERIKOA	12'00 €
FRITO NAHASIAK	4'40 €
FOIE ETXEAN EGINA	6'50 €
ENTZALADA NAHASIA	3'80 €
ARRAIN ZOPA	3'00 €
SALDA	1'00 €
PIPER BETEA (1)	1'50 €

arrainak...

BAKAILUA PIL-PIL ERARA	10'00 €
BAKAILUA BIZKAITAR ERARA	10'00 €
LEGATZ FRIJITUA	7'00 €
LEGATZ SALTSAN ALMEJEKIN	10'50 €
TXIPIROIAK TINTAN	9'00 €

haragiak...

MINGAINA SALTSAN	3'50 €
KARRILLERAK ARDO BELTZETAN	9'00 €
ESKALOPEA	4'00 €

postreak...

GAZTA TARTA	2'50 €
HOJALDRE TARTA	2'50 €
SAN MARCOS TARTA	2'50 €

GABONAK DIRELA ETA GURE ESKEINTZA ZABALAGOA EGITEA ERABAKI DUGU

HAUEK DIRA GABONETAKO PLATER BEREZIAK:

Itsaski nahaskia <i>Salpicón de marisco</i>	7'50
Arrain pastela <i>Pastel de pescado</i>	3'00
Zapoa americar erara <i>Rape a la americana</i>	16'00
Ganba eta onddoz beteriko legatz frijitua <i>Merluza frita rellena de gambas y hongos</i>	10'00
Bakailuz beteriko piper gorriak <i>Pimientos rojos rellenos de bacalao</i>	1'50

ENKARGUAK EGITEKO

AZKEN EGUNA: Abenduak 20

TXURRUKA JATETXEA

**MARKEL ARIZAGA****AITOR MADRID**

SEKRETUAK

Mundua kontrolatzea ez da bape erraza. Nik behintzat uste dot ez nintzala kapaz izango. Planetan gertatzen dan dana interesatzen dan moduan mantentziak lan asko eskatzen dau, baina batzuentzat jadanik gauza tribiala dala emoten dau, urte asko daroiez berdina egitten.

Aitortu biharra daukat lan miresgarrixa dala. Ez da bape erraza mundua kontrolatzen daben hoientzat artaldia ondo gordeta mantentzia.

Miresgarrixa da baitta, nola lortu daben gizur eta sekretuetan oinarrituta euren helburuak aurrera eruatia: gerrara juateko aitzakixak bilatu, desberdina dan hori beldurgarri moduan irudikatu eta nazio haundixen desira eta nahixak betetzeko egin diran astakeri danak izkutatu.

Zorionez, noizbehinka jende honen estresa areagotuko daben gauzak agertzen dira. Besterik gabe, mundu honetan gertatzen danari buruz egixa kontatzen daben gauzak, Wikileaks adibidez.

Nazio boteretsuenen gobernuak ez ditue eskuak garbi, eta euren zikinkeri dana azalera etaratzen daban zerbait agertzen danian, nik disfrutatu egitten dot zelan urduritzen diran ikusten.

Beste behin ikusten dogu, euren indarran aurrian, armarik boteretsuena gure jakintzia dala.

“

***Euren indarran
aurrian,
gure arma
boteretsuena
jakintzia da***

Markel Arizaga

***Ez dago
indarkerixia
erabili biharrik,
informazinua
kontrolatzen
bada***

Aitor Madrid

”

Iragana pixkat ikuskatzen badogu argi eta garbi ikusiko dogu gizartia kontrolatzeko eta euren interesen menpe izateko hainbat pertsonaiak egin izan daben ahalegina. Sasoi batian hau lortzeko indar militarra erabiltzea beste biderik ez zeben.

Hor dittugu Alejandro Magnotik hasi, Napoleonetik igaro eta Hittlerrekin bukatuta historixak laga doskuzen adibide argixak. Egun aldiz, gauzak aldatzen dihardute, poliki bada be. Jada ez dago indarkerixia erabili biharrik informazinua kontrolatzen bada eta hau manipulata, gizartia kontrolpian izango dogu.

Mass-mediak nahi moduan erabiliz eta jendiak internet erabiltzerakuan nahi dittugun edukixak ikustera bihartzen badittugu helburu hau lortuko dogu. Txina da horren erakusle argixena. Baina gurian badare beste arrisku batzuk

be eta hori sareko neutraltasun auzixan ikusi ahal dogu. Telefonikak sareko erabilpenakin egin nahi

dabena guztiz lotsagarrixa da. Oin arte sarian ibiltzeko zerbitzua eskaini dau baina bere nahixak harutzago doiaz eta eskaintzen dabena arautzia nahi dau. Zein da hurrengo pausua? Nun sartzen garan kontrolatzia?

Ezkutuan ziurrenik kontrolatuko gaituelakuan nago eta Wikileaks moduko ekimena honi erantzutera datorrelakuan be banago. Zer egitten dogun badakizue? Ondo da, guk zeuen ezkutuko gorabeherak azaleratuko dittugu.

Goguan hartzeko

“Arriskuari aurrez begiak ezarri, kalte handiak ez daitezen etorri”.
Gotzon Garate, euskal atsotitza



GUTUNAK

2011ko ordenantza fiskalak

Gure taldea abstenitu egin da, erantzukizunez jokatzuz. Udal gobernua % 2,10-eko igoera planteatu du tasa eta zerga guztiekiko. 2007-2011 legealdiko ordenantza fiskalei dagokionean azaroaren 10ean izandakoa, izan da, azkenengo eztabaida. Lau urte hauetan ondorengo igoerak proposatu ditu udal gobernua:

2008rako, KPI % 2,7 a / Zaborra % 14,70; 2009rako, KPI % 5 a / Zaborra % 25,20; 2010erako, KPI Kongelazioa / Zaborra % 9,61; 2011rako, KPI % 2,10. Tasa eta zerga guztiei aplikatu zaie igoera hau. Guzti hau kontuan izanik proposamen bat luzatu diegu alderdi politiko guztiei orokorrean eta bereziki ezker abertzaleari. Bake fiskala, hau da, etorkizunari begira ez dadila izan eztabaida gai

ordenantza fiskalen onarpena. Ezker abertzalea oposizioan zegoenean sistematikoki ordenantza fiskalen aurka bozkatzeko zuten. Igoerak onartezinak zirela argudiatuz. Gobernuan dauden honetan eta gainera alkatea denean Ogasuneko batzordeburua ikusi ditugu zeintzuk izan diren proposaturiko igoerak. Espero dugu etorkizunari begira gobernuan izan duten koherentzia mantenduko dutela. Bestalde orain arte, gai honi buruzko berririk ez ikusi ezta irakurri ere ez dugu egin herriko hedabideetan, ondorioz lerro hauek idatzi ditugu herritarrak informatuak egon daitezen. Informazio gehiago www.soraluzepnv.com.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Pil-pilean aldirikoko gutunetako irizpideak

- Pil-pileanek beti bermatuko du gutxienez hiru gutunentzako lekua, aniztasuna lortzeko eta gutuna argitaratu nahi duten guztiei aukera eskaintzeko. Ondorioz, hiru gutun daudenean, 1.100 karaktereko luzera izango du gehienez gutun bakoitzak. Bi gutun jaso ditugunean edo bakarra, gehienez 1.900 karaktereko luzera izateko aukera izango du gutun bakoitzak. Karaktere kopurua ez bada irizpideotan azaldutakoa, Pil-pilean aldirikoko erredakzioak mozteko eskatuko dizu.
- Hiru gutun daudenean, norbaitek 1.900 karaktereko gutuna bere horretan mantendu nahi badu, hurrengo alean argitaratzeko aukera izango du, baldin eta beste bi gutun iristen ez badira. Kasu horretan, 1.100 karakterekoa sartzeko aukera bakarrik izango du.
- Zein gutun sartu eta zein kanpoan geratu erabakitzeke gutuna jaso den data kontuan izango da. Bestetik, aurreko alean gutunik sartu ez zuen norbanakoak edo taldeak lehentasuna izango du aurreko alean gutuna sartu zuenaren aurrean.
- Gutun guztiek izenpetuta egon beharko dute, pertsona bakarraren edo gehiagoren izenean edo talde identifikatu baten izenean. Ez da onartuko adibidez, "herriko jubilatutako batzuk" edo "auzokide batzuk" edo horrelakorik.
- Gutun guztiek formatu bera izango dute: izenburua beltzez, testua eta egile(ar)en izena(k). Ez da letra NAGUSIRIK edo **beltzekorik** azalduko testuan.
- Epea: aldirikoko argitaratzen den asteko martitzen egardia baino lehenago jasotako gutunak bakarrik argitaratuko ditugu.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldirikoko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Mikel Leunda
Mendebaldeko Sahara

Sahara Afrikako lur-zatia da. Espainiak 1884an kolonizatu zuen eta Maroko eta Mauritaniaren esku utzi zuen 1976an. Lurralde, zatirik handienez, Marokok dauka hartuta. Marokoren eskutan ez dagoen lur-eremua Fronte Polisarioak administratzen du. 1976an Fronte Polisarioak Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zuen nazio gisa. 1991an, Nazio Batuen bitartekaritzaz, su-etena adostu zuen Marokorekin. Nazio Batuek 1992an autodeterminazio-erreferenduma egingo zutelako hitzeman zieten Sahararekin, baina hitza jan egin dute. Abdeslam sahararra da, baina ez da Saharan bizi. Tindufen bizi da, Sahararekin Aljeriak utzitako basamortu zatian eraiki zuten kanpamenduan. Bizitzeko leku desatsegina da Tinduf, lur elkor, idor eta sikua. Han bizi da Abdeslam. Han bizi dira 170.000 saharar, 1975eko azaroaren 5ean, Marokok Mendebaldeko Sahara militarik inbaditu eta ihes egin beharra izan zutenetik. Egunerokotasunaren gorpila astuna egiten da Tindufen. Marokok Agdaim Izik kanpalekua indarrez desegin du. Sahararrak hiltzen eta torturatzen dihardu. Abdeslam armatarara noiz deituko duten zain dago, finean hobeto baita zutik hiltzea belauniko bizitzea baino.

Juan Manuel Arruabarrena, pintzel lodi eta finekoa

((ENTZUTEKUAK))

Jaiotzez eibartarra bada ere, Juan Manuel 50 urtez bizi izan da herrian. Margolaritza ofizioa afizio bihurtu du eta abenduaren erdialdean bere koadroez osatutako erakusketa zabalduko du Oreka Art aretoan. Margolaritza iraupen lasterketa bat modukoa dela dio, poliki egin beharreko karre-rra, baina atsedetik hartu gabe.

Atzetik aurrera. Zer da artia zurretzat?

Artia sentimentua da, emozioa. Bizitza bizitzeko eta ikus-terko modua. Kolore eta egituren arteko armonia.

Goguan daukazuz margolaritzako lehenengo pausuak?

Lehenengo eskopeta grabatzailia izan nintzan Eibarren. Sektorereko krisiak Mallorkara bizitzera eruan ninduan. Bueltan, beste lanik topatu ez eta brotxa lodiko margolari hasi nintzan. Artiari arduria sortu jatan orduan. Madrilen marrazketa teknikak ikasi nittuan eskola baten, baita Donostian be. Poliki-poliki nere ofiziu afizino bihurtzen janzan baina egiza esateko, margolaritza naiz hola tokatu jatalako. Musikiakin emozionatu egiten naiz, margolanekin oster, inoiz ez! Margotzia gustatzen jatalako naiz margolari.

Eta zein diziplina lantzen dozu?

Diziplina zehatzik ez. Nik nahi dotena nahi dotenian margotzen dot. Egiza da hasieretan nere begi-ekin ikusten nebana margotzeko ahalmena bakarrik sentitzen nebala. Hau da, paisajiak, mendixak eta bodegoiak marrazten nittuan gehixenbat. Gaur egun teknika



bat baino gehixago aplikatu eta nere obra propixua sortzen dot. Askotan noraino helduko naizen jakin barik, baina emaitzaz beti harro, nik sortutakuak diralako!

Zerk inspiratzen zaittu?

Nere lanan oinarritza natura da, naturako kolore eta paisajiak inspiratzen nabe. Sorraluzeko egun-sentixak be esanahi berezixa dauke neretzat. Lanbrua, misterixua...

“nere lanen oinarritza natura da”

Kuadruetan zer komunikatu nahi dozu?

Nere lanak zeoze adierazten badabe, lana ondo egin doten seinale da. Nere proposamena ikusliari kuadruari begira geratu eta hausnartzeko aukeria emotia da.

Erakusketan zer ikusiko dogu?

Oreka Arten 20 kuadro ipiniko dittugu ikusgai eta salgai, abenduan 17tik 31ra bittartian. Lan danak naturan oinarrituta dare, nere erara interpretatuta.

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda
T. 943 75 30 11

JUAN MARI
ARRAINDEGI
943 75 24 40
MERKATU PLAZA
25. URTEURRENA
ESKERRIK ASKO PLARENTZIATARRAJ
GUGAN IZANDAKO KONFIANTZAGATIKI

Lau herritar epaituko dituzte “fatxada desitxuratzea” leporatuta

Datorren abenduaren 14an lau herritar epaituko dituzte Eibarren 2009ko Gaztañerre Azoka bezperan herriko Gaztetxe kanpoan horma irudi bat margotzeagatik. Gazteen berbetan, fatxada margotzen zihardutela Ertzaintza hurbildu eta lau lagunak identifikatu zituen “fatxada desitxuratzea” leporatuta. Pil-pileani

azaldutakoaren arabera, kasuan salatzaile moduan Soraluzeko Udala ageri da. Udalak, hainbat bide administratibo erabili ditu salaketarik ipini ez duela epaitegiei adierazteko, baina kasuak aurrera jarraitzen du. Isun ekonomiko ordaindu edota gizarte lanak eginaraziko dizkietela uste dute gazteek.



Mural hau egiteagatik epaituko dituzte lau gazteak.

Euskara munduratzeko 500 globo zerura

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zen abenduaren 3an Euskal Herrian eta Soraluzen ere hala egin zen. “Euskara, jalgi hadi plazara” abestia kantatu zuten lehenengo ekitaldira hurreratutakoek, komunikatua irakurri eta 500 globo jaurti zituzten zerura, euskara ere mundura bidean ipintzeko.



Azaroak 25 aldarrikatzeko egitarauan aldaketa

Soraluzeko Emakume Batzordeak eta Yoana Azpitarte udaleko berdintasun teknikariak Emakumeenganako indarkeria salatzeko antolatutako egitarauaren barruan “Anbotorako bidean Mariren gerrikoa” deritzon tailerra abenduaren 22rako prestatuta bazegoen ere, egunez aldatu eta abenduaren 20an egingo da, arratsaldeko 18:30ean Zinean. Tailer honetan parte hartu dezaketen emakumeen kopurua mugatua delako, izen ematea abenduaren 17a baino lehen egin behar da, Udaletxeko bulegoetan.

“Soraluze Basobidez” proiektua finalista

Udalsareak, Tokiko Agenda 21a lantzen duten EAeko udalen sareak, 2010. urteko egitasmo onenak saritu zituen abenduaren 1ean. Udal Gobernu Taldeak “Soraluze Basobidez” egitasmoagatik “Biodibertsitate eta aldaketa klimatikoa” deritzon atalean Zerain eta Amurriorekin batera finalera heltzea lortu zuen baina Amurriok eraman zituen sariaren 3000 euroak etxera. Herriko landaretza autoktonoa sustatzeko lanekin aurrera jarraitzeko asmoa du Udal Gobernu Taldeak.

Allegroko bertso-afarirako tiketak salgai

Abenduaren 17an, barixakua, Allegro Elkartek bere 50. urtemugako egitaraua bertso-afari batekin itxiko du. Eneko Beretxinaga, Anjel Mari Peñagarikano eta Amaia Agirre bertsolariak jardungo dute ospakizuna girotzen. Afarirako tiketak salgai daude eta Edurtzan edo Txoko tabernan eros daitezke, 20 eurotan. Afaria iluntzeko 21:00etan hasiko da.



Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Jantoki herrikoia eta truke azoka antolatu ditu Elkartzenek

Iñigo "Plaentxi" oroitzen

Iñigo Salazar "Plaentxi"-ren lagun talde bat Errealeko partiduetara joateko boletoa zozketatzen ari da, euren lagunari agur duina emateko eta aldi berean bere familiari laguntzeko. Urte osoan Anoetan jokatu diren partiduetarako 2 sarrera zozketatuko dituzte eta hurrengo partidurako bi sarrerak hilaren 16an zozketatuko dira, 21:00etan kontzejupean. Errealak Valentzia hartuko du Anoetan.

Erreala-Athletic derbya urtarrilean

"Plaentxi"-ren lagunak urtarrilerara begira Errealeko eta Athleticceko betaroen arteko partidua antolatu nahi dute. Futbolariekin harremanetan ipini dira dagoeneko eta derbya jokatu dezaten ahalegina egiten dihardute.



Iñigok Soran jotzatzen zueneko argazkia.

Txernobileko umeak etxean hartzeko deialdia

Txernobil Elkarteak 40 haur inguru hartzeko familia bila ari da. 2011. urtean zentral nuklearrak ezta egin zuen 25. urteurrena beteko da. 2011. urteko udaran haurrak etxean hartzeko gestio lanekin hasita daude dagoeneko. Txernobildarren osasun arazoak direla eta, hauen etorkizunari begira, Euskal Herriko etxeetako egonaldiak oso garrantzitsuak direla azpimarratu dute elkarteak arduradunek.

Egoitza Bilbon

Hortaz, interesatuak Bilboko egoitzara jo beharko dute, (Bidarte Udalgia, Lehendakari Agirre 42 kalera) edo 670 419078 telefonora deitu.

Elkartzen, eskubide sozialen alde lan egiten duen mugimendu sozialak, Atxolin eta Keixeta Guraso Elkarteekin laguntzaz egitaraua antolatu du Gabonetan "pobreziarekiko eta kontsumo-arekiko dugun arazoaren aurrean protestatu eta sentsibilizazioa bultzatzeko".

Janari, edari eta opariak eskuragai

Abenduaren 18an jantoki herrikoia egingo dute kontzejupean, 14:00etan eta bereziki pobrezia-aren mugaren azpitik bizi diren guztientzako zabalik egongo da. Azaldu dutenez, ez dute horrelako ekintza bat antolatzen diru-sarrerarik eta herriko merkatariei ahal duten janaria edota edaria emateko eskatu nahi diete. Abenduaren 10etik 14ra bitartean jasoko dituzte produktuak. Bigarren ekintza liburu eta jostailuen truke azoka izango da, "s Iñigok Soran jotzatzen zueneko argazkia. asoi honetako kontsumismoari aurre egin eta berre-

rabilpena bultzatzeko. Zergatik kontsumitzen jarraitu beste pertsona batek behar duguna badu?" diote. Abenduaren 20an eta 21ean kontzejupean egongo dira 18:00etatik 21:00etara. Astelehenean materiala jaso eta martitzenean jasotakoa trukatu dute.

Pobrezia-aren muga 1.069 eurotan ezarrita dago

Aurten pobrezia-aren muga 1.069 eurotan ezarri da Hego Euskal Herrian. Muga hori Kooperazio eta Hazkunde Ekonomikorako Erakundeak (KHEE) erabiltzen duen irizpidearen arabera ateratakoa da, Barne Produktu Gordinareneko %37'5 kalkulaturik. Elkartzen jakitun da herrian jende asko bizi dela muga horren azpitik eta beharrezkoa ikusten du jendartearen sentsibilizazioa eguneroko arazo sozialen aurrean. Gabonetarako gutxien daukatenentzat egingo dituzte ekintzak "gazte nahiz heldu, gizon nahiz emakume, herrikoa zein etorkina izan".



Elkartzenek Babes Ofizialeko Etxeak zozketatu ziren egunean egindako elkarretaratzea.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**


ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM
Desing
Discinua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



*Ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izotzak
nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hilotzak
eguzki eder joan guztian
argia baitu bihotzak
eta begien milla ernegai
iraganaren oroitzak.*

*“Ez nau izutzen negu hurbilak”
A. Lete*

Zulotik
begira

DBHkoen arteko futbol txapelketa

Iaz bezala aurten ere futbol txapelketa bat antolatu dugu Institutuko ikasleonean. 4. mailako ikasleek zozketa bidez egin zituzten aipatutako taldeak eta horrela antolatu zuten partiduak jokatu beharreko ordena ere. Esan beharra dago, txapelketako antolakuntzari buruz egon diren kezak ikusita, bigarren txapelketa orekatuago bat antolatzeko asmoa badagoela.

Hitzordua jolastorduetan

Jolastorduetan jokatu ditugu aipatutako partidak eta hoge minutukoak izan dira, hamar minutuko iraupena izan du zati bakoitzak. Aurreneko arbitroak 4. mailako bi ikasle izan ziren, zein baino zein kaskarragoak...!

Kanporaketa bat egin ondoren, finala jokatu eta Oregi anaiak, Ion Ordax eta Ibon Basalduak irabazi zuten txapelketa.

Giro paregabea igaro ditugu jolastorduetan eta nesken eta mutilen arteko parekidetasuna bultzatuz, guztiok parte hartu dugu txapelketan.

Hurrengo txapelketa prestatzen dihardugu eta dagoeneko hainbat ideia loratu dira. Denei bertan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu lerro hauen bitartez! Animatu bigarren txapelketan parte hartzera, laster hasiko da eta oso ondo pasatuko dugu!



Leizezuloak, mendia eta rapela Lizarrustin

Soraluzeko institutuko lehen mailako ikasleek maiatzean Lizarrustira bidaia egin zuten. Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan dago Lizarrusti, Aralar Parke Naturalaren barruan eta Ataun zeharkatuz iristen da bertara.

Goizeko 9:00etarako denak oso pozik zeuden eta irteteko gogo handiarekin. Ordubeteko bidaia luze baten ondoren iritsi ziren Lizarrustira. Bi monitorea, Txingu eta Aitor, bertan zeuden ikasleen zain, gazteak ezagutzeko gogo handiarekin! Institutuko bi irakasle ere, Iñigo eta Imanolek, ikasleekin batera egin zuten bidaia.

Lehenengo egunean mendi buelta txiki bat egin eta leizezulo batean sartzeko aukera izan zuten. Ikasle guztiei gustatu zitzaizkien, "oso polita eta berezia" izan zela nabarmendu zuten. Arratsaldean berriz, Txingu eta Aitor begiraleekin tirolina praktikak egin zituzten.

Hurrengo egunean, mendi buelta handi bat egiteko asmoa zuten eta horren ostean, urez betetako leizezulo handi batean sartu nahi zuten, baina eguraldi txarrak plana galarazi eta zuzenean kobara joan behar izan zuten. Oso ederra iruditu zitzaizkien eta noski.... lokatzez estalita atera ziren bertatik!

Arratsaldean monitoreek rapela egitera gonbidatu zituzten ikasleak eta bai ederki pasatu ere! Azken egunen berriz, eguzkia irten eta jolas baten bitartez ikasleek iparrorratza erabiltzen ikasi zuten. Bazkalostean, autobusa segituan iritsi zen eta tristura handiarekin bi monitorea jator haiek agurtu eta Soralezera bueltatu ziren, guztiz indarberrituta!



Amaia Aldai, liburuzaina

“Behin gutxienez, nobela danak dare irakurritta”

Durangoko Azoka ospatu den honetan, liburu eta diskoen eskeintza gugandik gertu eta doan egiten digun liburutegiarekin gogoratu gara, hainbesteko jendetzarik izaten ez duen toki liluragarri horrekin. Milaka liburu gure begien gozagarri izateko zain daude apaletan.

Herriko ze sektorek bisitatu dau gehien liburutegixa?

Gehixena umiak eta gaztiak etortzen dira, nagusi asko be etortzen dira. Lehenak lanak egittera eta ikastera etortzen dira, aldizkarixak edo animalari eta landaren liburuak irakurtzera. Nagusixak ostera, liburuak eta pelikulak maileguan eruaten dittue etxera. Nagusixen artian, badare 20-30 urte inguruko gaztiak be ikastera eta wifi zerbitzua erabiltzera be etortzen diranak.

Jende helduari kostatzen jako gerturatzia?

Helduak ez dabe hartzen liburutegixa eurendako zerbitzu gisa. Alde batetik, pentsatzen dabe hau umiendako eta gaztiendako lekua dala, ikasteko tokixa batez be.

Bestetik, hona etorri eta gauzak duan hartzeko mentalidadia batzuegan ez dago errotuta. 60 urte inguruko jendiak

“Helduek ez dabe hartzen liburutegixa eurendako zerbitzu gisa”

galdetzen dau: “eta hau zela ordaintzen da?” edo “hilian zenbat da?”. Nik erantzuten dotset dohainik dala, zergen bittartez ordaintzen dozula, erabili edo ez erabili. Horrek konbenzitzen dau jendia.

Ze generok dauka arrakasta haundixena?

Polizialak, intrigazkuak, erromantikuak eta amodiozkuak asko irakurtzen dira. Beste jende batek abentura eta bidaiak liburuak eskatzen dittu. Gai jakin bat jorratzen daben liburuak be bai, mendikuak, elikadurari buruzkuak, informatika eta naturan gainekuak. Bakar batzuk antzerkixa eta poesia pixkatxo bat. Baina gehixenek nobelak irakurtzen dittue, behin gutxienez danak dare irakurritta.

Zenbat liburu dare gutxi gora behera?

Liburu eta pelikulak eta bestelakuak kontautau, 15.000 inguru.

Zela kudeatzen dozu materixal guzti hau?

Badare ordenatzeko sistemak. Adibidez, helduendako edo gaztiendako diranak “h” eta “g” markia daroie. Gero, idazlian abizenan lelengo 3 hizkixak ipintzen dira eta berdin izenburuakin. Alfabetikoki sailkatuta, daneri barra kodia ipini eta danak ordenagailuan sartuta dittut, dan-danak. Kontrol informatikuak asko laguntzen dau.

Zein da zure egunerokua?

Jaso materixal barrixa, katalogatu, bere tokixan ipini, apalategiak ordenatuta mantentzia, maileguen kontrola eruatia... Baita jendia datorrenian bertako ordena mantentzia be eta horrek denbora eta energia asko kentzen dau. Gero, eguneratuta egon bihar naiz, merkatuan urtetzen dana eskatzeko... Liburutegiko erabiltzailien eskaera batzuk jaso eta ia liburutegi orokorrian interesgarrixak diran be ikusten dot.

“15.000 liburu inguru dittugu”

Zu arduratzen bazara eskaerez, argitalpenen berri euki biharko dozu...

Bai, interneten kontsulta asko egitten dittut argitaltarien azken berritasunak ikusteko, nun eskuratu leikezen jakiteko. Normalian Eibarren eta Donostian egitten dittut erosketak. Bakar batzuk interneten bitartez eskatu eta ekarri izan dittut. Erosteke modu berrixa da.

Nun saltzen dozu gehixen?

Euskadiko Liburutegi Zerbitzuak Udal Liburutegi danak batzen dittu. Sarian gauza nabarmenena da interneteko katalogo baten bittartez guk jakin geinkela beste liburutegixetan ze liburu daren eta mailegatuta daren ala ez. Honek gure arteko mailegu zerbitzu bat martxan ipini dau eta liburutegixen gainian genkan kontzeptua aldatu egin dau. Oin arte, zenbat eta liburu eta titulu gehixago euki orduan eta liburutegi osatuagua zan. Baina oin horrek ez dau axola, zure liburutegixa nahiz haundixa nahiz txikixa izan, bihar dozuna ondokuari eskatu zeinkiolako.

Abantaila haundixa izango da...

Haundixa da, zure liburutegixan ez daukazuna bestietatik hartu zeinke. Igual ez azken berritasunak, baina bai iazkuak. Horrek aukeria emoten dotsu gai batian espezializatzeke. Danetik eukitzeke biharrik bare, liburutegiko bilduma espezializatuagua izateko aukeria daukazu, erabiltzailien nahixen arabera antolatutako liburutegixa.

Liburu elektronikua gero eta gertuago ei daukagu...

Gauziak mugitzen dihardu. Liburudendak eta argitaletxiak “Libranda” izeneko plataforma bat dauke. Honen bittartez liburuak erosi leikez. Erostita baina, deskargatzia da, e! Liburu irakurtzailia erosi egin biharko da eta gero, liburutegixak ale bat erositian irakurliak bertan kargatuko dau eta juango da etxera, 15 egunera bueltatuko dau eta artxibo hori ezabatu egingo dot. Momentu hontan liburutegixak kanon bat ordaindu biharra dauke liburuak erosteke, baina 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrixak libratu egitten dira, gu tartian.

Ze dago faltan gure liburutegixan?

Tokixa falta da. Mahaittik apalategixetara ez dago apenas lekurik eta horrek asko mugatzen dau jendiak kontsultak egittia, ez da erosua eta.

Bestela, irakurketa sustatzeko ekimenak egitten dira, ipuin kontalarixak, antzerkixa... Nik buruari bueltak emoten dotsadaz, liburu baten aurkezpena egin leikian, musikia eta irakurketia lotu ekintza baten bitartez... Umiak asko disfrutatzen dabe eta igarri egitten da. Baina herriko jendiak ez badau egitten, kontratatu egin bihar da eta horrek dirua suposatzen dau.






GAZTAÑERRE EGUNA



Urtero egiten den moduan, aurten ere Gaztañerre Eguna ospatu genuen. Barixakuan eskolan azoka jarri zen eta bertan gure baserrietako produktuak eta tresna zaharrak erakutsi genituen. Gurasoak ere azoka ikustera etorri ziren.

Astelehenean berriz, bertsoak abestu eta ohiturari jarraituz gaztainak jangenuen, HORI BAI, AURREZ KUKURUTXUAK EGITEN IKASI ONDOREN.





Musikia entzuta gustatzen jatzu?

Zein da zure kanturik gustokuenena?

Aitor Esnaola, 8 urte



Neri AC/DC musika taldea entzuta gustatzen jata, baina etxian bakarrik entzuten dot, eskolan andereñuak esaten doskun abestixak bakarrik kantatzen dittugulako. Txirulia ikasten dogunian kantatzen dogu normalian.

Mayara Zarobe, 8 urte



Neri kantatzia asko gustatzen jata, eta eskolan abesteko aukeria dakatenian asko gozatzen dot. Ez daukat talde gogorik, baina etxian entzuten doten musikia, normalian, erdal musikia da. Eskolan Olentzeron abestixa ensaiatzen dihardugu, laster etorriko da eta!

Nik Jonas anaiak entzuten dittut gehixen, oin modan dare eta! Nere lagunak be entzuten dabe eta normalian etxian entzuteko aukeria izaten dot. Kantatzia ez jata bape gustatzen, eta egitten dotenian derrigortuta egitten dot.

Sandra Hidalgo, 8 urte



Nere kanturik gustokuenena "Tenía tanto" da; ez dakit zeinena dan baina amakin batera abesten dot etxian eta asko gustatzen jata! Bestela Michael Jackson entzuta eta dantzatzia gustatzen jata, zelako dantzak egitten zittuan berak!!

Jon Oregi, 8 urte



DENBORAPASA

Sudoku

Gogoan har ezazu: 1etik 9ra arteko zenbaki guztiek ageri behar dute errenkada, zutabe eta 3x3 lauki guztietan.

1	9			4	2			
	6	3			7	8		
	7		3		1	5		
8		9	5	3				1
	4						6	
6				2	4	9		3
		1	7		8		2	
	5		4			3	7	
		2		6			1	5

5	8		9	3				1
	3	7	5				6	8
				2			5	
6			4	2		9	5	
		2				6		
1	4		8		9			2
	6			5				
8	2				6	5	4	
9			3	7			1	6

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Durangoko Azokak jendetza erakartzen du urtero disko eta liburu artera. Baina literaturarekiko sukarrak ez du lar irauten ondoren. Esaterako, herriko liburutegia bertan dago baina zenbatek egiten ote du maiztasunez horra joateko aukera?

Liburutegira joateko ohiturarik badaukazu?

ENAITZ DIAZ
Langilia



Ez daukat ez liburutegira joateko ohiturarik ezta irakurtzekorik be. Egia esateko gehixago irakurri biharko neuke, holan, buruari pixkat emon eta ideiak mugimenduan ipintzia ez dago sekula soberan.

MYRIAM GOENAGA
Eszedentzian




Ez, ez naiz juaten. Azkenengoz aspaldi egon nintzan, baina ikastolako sasoietan, beraz pentsatu! Durangora joateko ohiturarik be ez daukat. Hala ta be, badakit gehixago irakurri biharko neukela.

TEO RUIZ
Pentsioduna



Lehen gehixago juaten nintzan. Oin umiak juaten dira bertara eta askotan emoten dau gaztiendako ikasteko lekua baino ez dala. Irakurri egitten dot, oesteko liburuak gustatzen jataz gehixen, baina liburutegira ez naiz juaten.

VERONICA TABARES
Zaintzailia



Umiendako bideoren baten bila akaso, baina ostantzian oso gutxi. Senarra be juaten da noizian behin. Bestela, irakurzalia naiz, asko irakurtzen dot. Toti Martinez de Lezean nobelak gustatzen jataz.

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soralueze. Tel. 943 75 17 89



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

**Errekalde 21
20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Jose Almonteren lanak kontzejupean ikusgai

Asteburu honetan, Soroluzera heldu berri den Dominikar Errepublikako José Almonteren lanak salgai izango dira kontzejupean. Eskulturagilea da berez Almonte, baina oraingoan Dominikar Errepublikako kolore epelez osatutako margolanak jarriko ditu salgai. Margolanak 20 euro eta 245 euro artekoak dira eta eskulturak 20 eta 50 euro artekoak. Goizeko 08:00etatik gabeko 00:00ak arte egongo da lanak ikusi eta erosteko aukera.



Gaztetxeko Hamabostaldia hastear da

Soroluzeko Gaztetxeko asanbladak prest du "Hamabostaldi Kulturala". Gustu eta estilo guztietako ekitaldiek beteko dute hilabetez iraungo duen egitaraua, poesia errezitaldiak, truke azokak, kontzertuak, jolasak eta auto-defentsa tailerrak esaterako. Hamabostaldia abenduaren 17an hasiko da eta urtarrilaren 15era arte luzatu.

Abenduaren 17tik 24ra bitartean honek izango dira:

Abenduak 17:

Hanka Hutsik poesia errezitaldia.

Abenduak 18 eta 19:

Auzolana Gaztetxean.

Abenduak 20:

Bideo emanaldia.

Abenduak 21:

Asanblada 19:00etan Gaztetxean.

Abenduak 22:

"Eizu zuk zeuk" eskulan tailerra.

Abenduak 24:

Truke Azoka goiz osoan zehar.

Mursego Arrano Elkartearen

Domeka honetan Mursego, Maite Arroitauregi eibartarraren proiektua ezagutzeko aukera egongo da Arrano Elkartearen arratsaldeko 20:00etan. Bere bigarren diskoa "Bi" kaleratu berri du eta lehenengoan bezala, biolontxelo nagusitzen bada ere kantu oso originalak konposatu eta instrumentu ugari nahastu ditu.

Olentzero eta Mari Domingi idiek ekarriko dituzte

Azken urteetan egin den moduan, Gabonak datozela aditzera emateko Olentzero eta Mari Domingi jarri dituzte Plaza Barrixan. Estalpe dotorean lekua hartuta, baserriko produktuez inguratuta hurbildu dira aurten gurera. Herriko haur eta gurasoek abenduaren 24an egingo diete ongi etorri beroa, zoriona banatzeko menditik jaitsiko diren bi pertsonaiei. Aurtengo ekitaldiak berezitasuna izango du ostera; aurten idiek tiratutako gurdi gainean etorriko dira eta herrira. Ongi etorria egin ostean,

Urrats Dantza Taldeko kideek dantzaldia eskainiko dute Plaza Barrixan eta jarraian kalejiran irtengo dira herrian zehar.



ABENDUAREN 17tik 24ra BITARTEKO AGENDA

ABENDUAREN 17an, barixakua

MARGO ERAKUSKETA

J. M. Arruabarrena soroluzetarra

Inaugurazioa: arratsaldeko 19:00etan

Oreka Art Aretoan

ABENDUAREN 17an, barixakua

BERTSO AFARIA

Peñagarikano, Amaia Agirre eta Eneko Beretxinaga

Allegro Elkartearen iluntzeko 21:00etatik aurrera.

ABENDUAREN 22an, eguaztena

EGUBERRIKO KONTZERTUA

Musika eskolako eskutik.

Arratsaldeko 19:00etan Zinean.

ABENDUAREN 23an, eguena

POTXIN eta PATXIN PAILAZOAK

Arratsaldeko 18:00etan Zinean.

GABONETAKO KONTZERTUA

Ezoziko Ama abesbatzaren eskutik.

Arratsaldeko 20:00etan parrokan.

ABENDUAREN 24an, barixakua

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA

Jarraian Urratsa Dantza Taldearen ikuskin eta ondoren kalejira, herrian zehar.

Emozioz betetako inaugurazioa

Eli Lakuestaren argazkiekin osatutako erakusketaren inaugurazioan emozioa nabaria zen. Argazkilariaren senide eta lagun ugari batu ziren herriko argazki zaharrez osatutako erakusketa ikustera eta denak "oso pozik" agertu dira Kontrargik egindako lanarekin. Ekitaldia Lakuestaren senideen hitz goxoekin eta lore sorta banaketarekin itxi zen.



Eibarrek eta Sorak hitzarmena sinatu dute

Azaroaren 30ean Soraluze Futbol Taldeko zuzendaritza Eibar Kirol Elkartearekin bildu zen Ipuruan bi klubetako hitzarmena sinatzeko. Bailerako beste hainbat talderen moduan akordio batera iritsi da Eibarrekin, elkarrekiko hartueman hobetu asmoz.

Zerbitzuak eskura herriko taldearentzat

Alberto Berraondok dio hitzarmen honekin Soraluzek eta Eibarrek, bi klubek, irabazi dutela. Hainbat adibiderek azaldu du; Soraluzek adibidez, Eibarko instalazioak, sendagileak zein formazioa jasotzeko aukera izango du. Eibarrek bere aldetik, Soraluzeko jokalariren batengan interesik badu, bera hartzeko baimena eskatuko dio Soraluze Futbol Taldeari. "Elkarren arteko errespetuan be badatza hitzarmena", dio. Soraluzek ez da lehen taldea tanke-ra honetako akordioak sinatzen, lehenago ere bailarako hamar bat klubek egin dute gauza bera.

Iturria: Nerea Isasti



Bi taldeetako ordezkariak hitzarmena sinatzen.

Kiroldegiko bazkietza eteteko aukera abendura arte zabalik

Arane kiroldegiko arduradunek jakinarazi dute kiroldegiko bazkietza utzi nahi dutenek abenduaren 29ra arte izango dutela horretarako aukera. Harrerara jo behar da bazkietza eteteko. Abisurik ematen ez duten bazkideei 2011ko bazkietza automatikoki berrituko zaie.

Matrikulazioa egiteko epea ere zabalik

2011. urtean Arane kiroldegiko bazkide izan nahi dutenek, orain dute bertan izena emateko aukera. Prezioak honakoak dira:

URTEKO ABONU FAMILIARRAK

Gurasoak eta 18 urte arteko seme-alabak	164 €
Langabetuak (biak langabezian), jubilatuetan (biak jubilatuetan) eta elbarriak	85 €
Familia ugaria	85 €

URTEKO ABONU INDIBIDUALAK

18 urtetik gora	90 €
18 urtetik behera eta unibertsitarioak	71 €
Langabetuak, elbarriak eta jubilatuetan	52 €

* Abonatu gabekoentzat eguneko sarrera: 18 urtetik beherakoak: 2,50 €
18 urtetik gorakoak: 4,50 €

EMAITZAK

PELOTA

Titin III – Laskurain	22
Gonzalez - Zubieta	14

Titin III – Zubieta	20
Bengoetxea VI - Laskurain	22

Atxotegi – Diez	22
Larrañaga - Aldape	14

FUTBOLA

Bergara "B" – Sora (Erreg.)	0 - 3
Eibartarrak – Sora (Erreg. B.)	9 - 0
Sora (Jub.) – Goierri Segura	2 - 5
Sora (Kad.) – Elgoibar B	2 - 4
Sora (Erreg.) – Eibartarrak "B"	4 - 0
Sora (Erreg. B.) – Gazteak	1 - 5
Ilintxa – Sora (Jub.)	10 - 0
Urki – Sora (Kad.)	8 - 0

AGENDA

PELOTA

Abenduak 11, 17:30ean
Labrit pilotalekuan

Titin III. – Laskurain
Olaizola II. – Apraiz

Abenduak 13, 17:00etan
Urretxun

Titin III. – Laskurain
Aritz Lasa – Zubieta

Abenduak 14, 19:00etan
Bergaran

Atxotegi – Ojuel

FUTBOLA

Zapatua 11, 16:30ean Ezozin
Sora (Erreg.) – Aretxabaleta

Domeka 12, 17:00etan Ipintzan
Bergara K.E. – Sora (Erreg. B.)

Zapatua 11, 11:00etan Ezozin
Sora (Kad.) – Elgoibar

Zapatua 11, 17:30ean Iraetan
Zestoa – Sora (Jub.)



ZORION AGURRAK



Zorionak Unai!!

Abenduan 5ian 3 urte bete dittuzulako!
Muxu haundi-haundiak
Etxekuen partez!



Naroa Etxeberria Elizburu

Azaruan 17xan jaixua!
Ongi etorri ttiki!
Muxu potolo bat
etxekuen partez!



Aritz Etxeberria Elizburu

Abenduan 22xan, 6 urte!
Zorionak mutil haundi!!
Zaindu ondo Naroa...
Muxu pila bat etxekuen partez.



Zorionak Oihane eta Maite!

Abenduan 4an eta 5ian. Hainbeste itxoidako
18 urtiak zuenak diralako! Itxuria ez euki arren!
Muxu potolo bat Maialenen partez.



Miren Altuna

Abenduan 10ian urtebete!
Aita, ama eta Noran partez
zorionak eta muxu pila-pila!!



Miren Osinaga

Abenduan 11n 3 urte!
Zorionak sorgintxo!
Muxu haundi asko Manexen
eta gurasuen partez!



Ianire Makinai Milán

Abenduan 16xan 12 urte!
Zorionak polittori!!
Muxu haundi bat
aita, ama eta izarren partez!

jaiotakoak

NAROA ETXEBERRIA ELIZBURU



hildakoak

VICENTE GUSTINO RODRIGEZ



LEHIAKETA

- Zein ageri da argazki honetan?



Saria:

- Danbakako hurrengo kontzertuak ikusteko lau sarrera eta bi kamiseta.

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- **Irabazlea: Arturo Zarobe**
- **Iraultz Arluziaga** da aurreko aleko argazkixan agertzen dan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Kontrargi Argazki Kolektiboa

SANTA ANA KALEKO KOMENTUA

Argazki hau 1978. urte ingurukua da, Santa Ana kalian zeguan komentu parian etaratakua. Erretratuko eskumako atia komentuko sarrera nagusixa zan, eta beste atiak klausurako komentuko ortura emoten zeban. Argazki hau etara eta urte gutxira erantsi zeben aittatutako eraikina.

Eli Lakuesta (1929 - 2000) argazkilarixa eta bere alaba Larraitz dira argazki honetan agertzen diranak. Bere alabiari erretratua etaratzeko momentuan jasotako irudixa da hau, gutxittan gertatzen zana; normalian Eli zan eta kamarian atzian ezkutatu eta argazkixak etaratzen zittuana. Gaur egun milaka argazkiz osatutako altxorra dauke bere etxekuek, eta altxor honegaittik da ezaguna Eli Soraluzen. Bere inguru eta familixakuen berbetan, Elik zeukan bihotz haundixagaittik be bai.

JAVIER MESTRE

Elektrizitate eta telekomunikazioak

Tel 943 75 30 98
j_mestre_camino@hotmail.com

Telekomunikazio erregistro zbk. 10357
Tentsio baxuko instalazale erregistro zbk. 20/ccbt-2119
Ptxuri kalea 19-3, ezk. 20590 Soraluze

Egokitu ezazue zuen antena kolektiboa LTDaren 2. fasearako

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



HÑOS. BENITO ANAIAK



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

SAN ANDRES ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

ARRANO tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera



MAPFRE
SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabalatz, 5-8 Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infanegocio.com

Tel: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

MARE ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errebal kalea 1. behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81



Aras

DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21
50 Posta Kutxatila
20590 Soraluze

ARMENDIA JATETxea



Ezoi Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA



Lakuesta Optika

Ikusmen arazozen frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59



25 urte TXURITXU KAFETEGIA




Mende laurdena betetzen dugu herritarrontzat lanean kafe, gozoki, pastel ta opari jartzen giro alaiean.

Bertakoen izenean nahi genuke eskertzea guregana etorri izana zuen laguntzaz espero dugu beste hainbeste irautzea

25 urte zuen zerbitzura! zuçi esker.

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



**Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak**

Ordutegia:
8:00etatik 21:00etara (oin ez dabe ixten)

Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022

